

2024



Jardueren memoria



**Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua**
Consejo de Agricultura y Alimentación
Ecológica de Euskadi

1. AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA	2
2. LABURPENA	4
3. ORGANIGRAMA 2024	6
4. KONTSEILUAREN JARDUNA 2024	8
5. KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARAU	10
5.1. BARNE KOMUNIKAZIOA	10
5.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI	14
5.2.1. Kanpainak	14
5.2.2. Babesletzak:	16
5.2.3. Zuzeneko komunikazioa	17
5.2.4. Hitzaldi eta mahai teknikoak	21
5.2.5. Erakusketa ibiltaria	22
5.2.6. Merchandising	25
5.3. EKOLURRA PROIEKTUA	26
5.4. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.	27
5.4.1. Baratzezainen bidaia Britainiara	27
5.4.2. Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorea dinamizatzeko lan taldea	27
5.4.3. Idiazabal egunean "Idiazabaletik ekologikora" gidaren aurkezpena	29
5.5. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.	29
5.5.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin	29
5.5.2. EKOEUS azoka profesionalak Euskaditik kanpo	33
5.5.3. EKOAZOKA txikiak	34
5.5.4. SAREKO. Salmenta puntuen mapa eta Merkaturatze Sarea	36
5.6. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU	39
6. KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA	41

6.1 ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO ESKAEREI ARRETA	41
6.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK	41
6.3 KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA	41
6.4 FORMAKUNTZA	42
6.5 INTERECON PARTE HARTZEA	42
6.6.KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK.....	43
6.6.1 Eragile ekologikoen errolda.....	43
6.6.2 Ziurtatutako aktibitateak.....	46
6.6.3 Ekologikoan ziurtatutako nekazal lurren azalera.	47
7. KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK.....	49
7.1 Kontrol plana.....	50
7.2 Ziurtatutako produktuen analisiak.....	51
6.1 Egindako kontrolen ondorioak.....	53
6.2 Aurkitutako ez adostasunen laburpena	53

2. LABURPENA

2024 urteko otsailaren 5ean **kontseilari talde berri** batek hartu zuen EAEko eragile ekologikoen ordezkari gisa kontseiluan, Nekazaritza Ekologikoaren 2016/10 Legean ezarritakoaren arabera. Kontseilari talde honek Judit Gartzia Llorens aukeratu zuen kontseiluko lehendakari kargurako. Juditek esne behiak hazten ditu eta gaztak eta bestelako esnekiak ekoizten eta merkaturatzen ditu, Etxeberri-Goiko baserrian. Kontseiluen arteko informazio transmisio egokia bermatzeko, otsailaren bukaeran aurreko kontseilutik atera ziren kideen eta kontseilari talde berriaren artean lan saio bat antolatu zen. Kontseilu berriarekin batera, kontsumitzaile, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari berriak ere izendatu ziren.

2024ean, berriz ere berritu da Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzarekin sinatutako **lankidetzaz hitzarmena**, Kontseiluaren jarduerak garatzea ahalbidetzen duena. Gainera, Kalitate bereizgarriak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren “Kalitatea” diru-laguntza jaso da. Diru-laguntza honek eragile berriei edota ekoizpen aktibitate berri bat ekologikoan hasten dutenei laguntzeko lerro bat du eta kontseilutik eragile askori diru-laguntzaren lerro hau tramitatzen lagundu zaie.

Lan taldeari dagokionez, aurreko urteko taldea mantendu da, 13 langileko taldea. Irailean auditore lanetan ari zen teknikari batek borondatezko eszedentzia eskatu zuen eta ondorioz teknikari berri bat kontratatu behar izan zen urteko planifikazioa bete ahal izateko.

Eragileen errolda iaz baino pixka bat gehiago hasi da, %4 baina azken hiru urteetako igoera aurreko urteetan izaten zena baino txikiagoa izan da. Orokorrean interes maila mantentzen da, informazio eskaerak berdinak dira. 2024an emandako alta kopurua aurreko bi urteetan baino %39 handiagoa izan da, baina izandako baja kopurua altua da, azken hiru urteen antzera. Bajen arrazoi nagusia azken hiru urteetan errepikatzen ari da, gehienek nekazal jarduera uzten dute, ez dutelako bideragarritasuna argi ikusten. Alta gehienak ekoizpen arloan ematen dira eta joera goranzkoa da, azpimarratzekoa da Arabar Errioxan alta eskatzen duen mahastigile kopurua. Elaborazio enpresen kasuan geldialdia eman dela esan daiteke.

Inskribatutako azalerak ordea nabarmen egin du gora %18, guztira 12.689 Ha, 1.905 Ha gehiago. Batez ere larre eta mahasti azalaren igoerek azaltzen dute datu hau, %19ko igoera bietan, 1549 ha eta 272ha hurrenez hurren. Zer pentsa ematen du ordea ortugintza eta landaketa estentsiboen jaitsierak, %10 eta %7ko jaitsierak hurrenez hurren.

Une honetan, Euskadiko nekazaritza lurren % 6,7 ekologikoan ziurtatuta dago, oraindik urrun

‘Baserritik mahaira’ Europako Itun Berdearen helburua betetzetik, hau da: 2030ean lurren %25 eredu ekologikoan kudeatuak izatea, alegia.

Kontrol eta ziurtapen lanak. Inoiz baino lan gehiago egin dira erroldak handitzen jarraitu duelako. Abisatu gabe egindako bigarren kontrolak eta analitikak araudiak eskatzen duen ehunekoetan mantendu dira, analitiken kasuan hiru puntu gainera. 2024ko emaitzei erreparatuta, emaitza analitikoak hobeak izan dira, positibo edo kutsadura gutxiago antzeman dira. Baina orokorrean arau hauste gehiago detektatu dira eta arau hauste arrazoiak ere anitzagoak izan dira. 2024an kendutako ziurtagiriak 4 izan dira, aurreko urteetan baino gehiago, aldi baterako ezarritako ziurtapen etenak ere gora egin du.

Jarraitu daiteke esaten emaitzak ikusita, Euskadin Nekazaritza Ekologikoa egiten diharduen nekazari, abeltzain, elaborazio eta merkaturatzaile enpresen profesionaltasuna eta ekoizpen eredu ekologikoarekiko kontzientzia maila, altuak direla.

Komunikazio arloan lan taldea finkatzen ari da. Kontseiluak egindako komunikazio eta sustapen-jardueren tipologiai aurreko urteetan ezarritako dinamikari eutsi dio. Baina aipagarriak izan dira sektorea handitzeko egindako lanak, altak bultzatzeko gida berriak, edota topaketa profesionalak.

Sareko proiektua indartze aldera sistema informatikoan hobekuntza batzuk egin dira eta ekoizle talde berriak gehitu dira. Aipagarria da kontseiluko ekoizleen elikagai ekologikoak non erosi erakusten duen mapa sortu dela Interneten.


Bestalde, HAZIrekin elkarlanean aurreko urtean egindako publizitate kanpaina aldatu da baina “Ekologikoa, dena hobetzen” leMari jarraipena eman zaio. EAE-ko hauteskunde daten ondorioz kanpaina laburragoa izan da eta abenduan egin da.

3. ORGANIGRAMA 2024

AGINTARITZA ESKUDUNA

Eusko Jaurlearitza Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza: *Javier Plasencia Cuadrado*

KONTSEILUA



Gobernu organoak KONTSEILUA OSATZEN DUTEN KIDEAK:

Lehendakaria: JUDIT GARTZIA LLORENS Lehendakariordea: GARIKOITZ Aiesta ETXANIZ

Ekoizleen azpieroaldaren kide titularra:

Araba: ANNA MONTSERRAT MINGUELLA

Bizkaia: NADIA LÓPEZ RUIZ

Gipuzkoa: JOSE RAMÓN ARRIETA ZIALZETA

Elaboratzaile, inportatzaile eta merkaturatzaileen erroldako kide titularra:

Araba: RAUL RITUERTO TURRADO

Bizkaia: SONIA INGUNZA ZUMALDE

Gipuzkoa: MIREN NEKANE TOMASENA ELORZA

Euskadiko kontsumitzaileen elkarten ordezkaria: ION ARIÑO. KOLDO LEZAMIZ gonbidatu gisa deitu da, Ekokontsumo Federazioaren ordezkari gisa.

Euskadiko Administrazio Orokorren ordezkaria: IKER IGLESIAS EGUÍA (Elikagaien Kalitateko Zuzendaria)

Ordezkoa: ANA GUTIERREZ

Foru-aldundien ordezkariak:

Araba: M^a ASUNCION QUINTANA URIARTE (Nekazaritza Zuzendaria). Ordezkoa: SILVIA CORCUERA.

Gipuzkoa: XABIER ARRUTI (Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaria). Ordezkoa: MIKEL AZPIRI

Bizkaia: ARANTZA ATUTXA (Nekazaritzako Zuzendari Orokorra) Ordezkoa: OIER DUNABEITIA

Idazkaria: XABIER LEJARZEGI (Kontseiluko Zuzendaria)

Ziurtapen batzordea

Batzorde honetan kontrol eta ziurtapen lanetan interesa izan dezaketen alde guztiak ordezkatuta daude, kontsumitzaileak, ekoizleak, administrazioa eta adituak, denak maila berean, ez da bat gailentzen. Produktua ziurtatzeko jardueran Kontseiluaren inpartzialtasuna babesteko sortutako batzordea da, kontseiluaren lan esparru eta estrukturatik kanpo dago eta kideak zuzendaritza-taldearekiko independenteak dira:

Administrazioa (GV Dirección de Calidad Alimentaria): Ana Gutierrez; **Ziurtapenean adituak** (HAZI): Amaia Jauregi, Patricia de la Torre; **Kontsumitzaileak**: Ion Ariño (EKE), Koldo Lezamiz (Ekokontsumo Federazioa); **Elaboratzaileak**: Iker Iglesias (MIBA), Jose Ramon Arrieta (PIKUNIETA ARTZAIK), **Ekoizleak**: Ainhoa Alava (OILOBIDE), Urdaspal Alberdi (PATXIKOBASO), **Merkaturatzaileak**: Alberto Sanchez (EKOIZAN), Ion Uranga (UVESCO)

ZUZENDARITZA

Xabier Lejarzegi Irazabal

KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA

Ziurtapen teknikaria eta kalitate sistemaren arduraduna: Itxaso Cadenato.

Auditoreak: Irantzu Alegria, Amaia Lopez, Esti Martinez, Julen Elorza, Mikel Guerque eta Haritz Mayora.

KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN ARLOA

Teknikariak: Nagore Usabel eta Amaia Esnaola

ADMINISTRAZIO ARLOA

Kristina Somozas eta Igor Petralanda

4. KONTSEILUAREN JARDUNA 2024

Urtean zehar hainbat bilera egin dira, batzuk telematikoak izaten jarraitu dute baina presentzialetara bueltatu gara. Kontseiluaren osoko bilkurak bi izan dira, honako gai-zerrenda hauekin:

2024/02/05ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAKONTSEILU BERRIAREN ERATZE BILERA

1. Aldarrikatutako pertsonak karguaz jabetzea eta Kontseilu berria eratzea.
2. Lehendakaritzako eta lehendakariordetzako eginkizunak betetzeko proposatuko diren pertsonak hautatzea.
3. Komunikazio-sustapen eta kontrol-ziurtapen arloetan 2023an egindako lenen laburpena.
4. Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu (INTERECO).
5. Galde-eskeak.
6. Hurrengo bilera eguna ezarri.

2024/04/18ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAKONTSEILU BERRIAREN ERATZE BILERA

1. Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi.
2. 2024 urteko lan egutegia aurkeztu.
3. 2023 Jardueren memoria aurkeztu.
4. 2023 urteko kontu ekonomikoak aurkeztu.
5. 2024 urterako kontrol planaren ratioak aurkeztu.
6. 2024 urterako komunikazio ekintzen plana aurkeztu.
7. 2024 urterako aurrekontuaren onarpena.
8. Ziurtapen batzordeko kide berrien ingurukoak.
9. Sektore estrategiko izendapenen ingurukoak.
10. INTERECON kontseiluaren ordezkaria baieztatzea
11. Kontseiluaren irizpide linguistikoen onarpena
12. Galde-eskeak
13. Hurrengo bilera eguna ezarri

2024/07/03ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAKONTSEILU BERRIAREN ERATZE BILERA

1. Aurreko akta onartu, eta egiteko gelditu ziren gaien egoera berrikusi .
2. Ziurtapen batzordearen konposizio aldaketa onartu.
3. Sektore estrategiko izendapenaren inguruan informatu.
4. Kontseiluaren irizpide linguistikoen onarpena.
5. Bertako produktu ekologikoen bilatzailea sortzeko lan prozesua azaldu.
6. Kontseilu kide dieten inguruan akordioa.
7. Kontseiluko kideen esku utzitako gaien inguruan informatu.
8. Galde-eskeak.
9. Hurrengo bilera eguna ezarri.

2024/10/17ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAA

1. *Aurreko akta onartu, eta bukatzeke dagoena berrikusi.*
2. *Kontseiluko lan-taldeak burututako transformazio kulturalaren balorazioa (ISCC-ko arduradunak).*
3. *Ziurtapen batzordearen bileraz informatu.*
4. *Legebiltzarrak jantoki publikoen arloan hartutako erabakien berri eman.*
5. *Ekolurra marka, egindako hausnarketaz informatu.*
6. *Urteko kuoten kalkuluan aldaketak adostu.*
7. *Saltokien maparako -sareko.net- irizpidea finkatu.*
8. *Iker Iglesiasek INTERECO utzi ostean kontseiluak duen paperaz hausnartu.*
9. *2025 komunikazio planaren lanketa prozesua azaldu.*
10. *Galde-eskeak.*
11. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

2024/12/05ko BILKURAREN GAI-ZERRENDAA

1. *Aurreko akta onartzea, eta egiteke dagoena berrikustea.*
2. *Lehendakariarekin landutako asteko gaien errepaso azkarra egin.*
3. *Langileek proposatutako 2025 lan egutegia eta ordutegi berriari buruzko iritzia kontrastatzea.*
4. *Landa Garapenerako Eskualdeko Programak egiteko prozesuaren barruan, idatzi bat adostu eta 3 federazioei helaraztea.*
5. *Azaldu ze arazo ditugun datuak lortzeko, nekazal ekoizpen ekologikoaren presentzia lehen sektorean gaiari buruzko balorazioa egiterakoan.*
6. *2024 aurrekontuaren betetze mailaz informatu.*
7. *2025 aurrekontuaren zirriborroa aurreratu.*
8. *Urteko kuoten kalkuluan aldaketa adostu.*
9. *2023 Kuoten kobrantzaren inguruko informazioa eman.*
10. *2025 komunikazio planaren lanketa prozesua azaldu.*
11. *INTERECO elkartean izandako ezohiko asanbladaren berri eman.*
12. *Galde-eskeak.*
13. *Hurrengo bilera eguna ezarri.*

5. KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN JARDUEREN EGITARUA

Kontseilutik burutzen diren sustapen eta komunikazio ekintzak 6 helburu nagusitan biltzen dira FOPE egitasmoa oinarri hartzen delarik; **BARNE KOMUNIKAZIOA, EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI GIZARTEAN, EKOLURRA PROIEKTUA DINAMIZATU SEKTOREAN, EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN, KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU ETA KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA SORTU ETA SENDOTU.**

5.1. BARNE KOMUNIKAZIOA

Kontseilu berria martxan



Aurreko kontseilu taldeak 2022ko otsailean hauteskunde prozesuari hasiera eman bazion ere, egokitzapena behar zuten zenbait administrazio-gaiek prozesua luzatu dute. Oztopo hauek konponduta, hauteskunde prozesua 2023ko irailaren 1ean jarri zen martxan. Talde berriak 2024ko otsailaren 5ean egin zuen lehendabiziko eratze bilera, eta bertan ofizialki KONTSEILU BERRIA osatu zen. Egun honetan finkatu ziren ere lehendakaritza eta lehendakariordetza karguak, hautagaien arteko bozketa bitartez. Hala, datozen 4 urtetarako Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko Lehendakari Judit Gartzia Llorens izango da, lehendakariordetza, berriz, Garikoitz Aiesta Etxaniz-i egokitu zaio.

Barne jardunaldia.

Otsailaren 22 eta 23an, Kontseiluak Amorebieta-Etxanon (Bizkaia) duen egoitzan, bi eguneko barne saioak antolatu ziren aurreko Batzordearen eta berriaren arteko informazio trukaketa egiteko. Barne saio hauetan, Lurraldeetako nekazaritza ekologikoko elkarten beharrianak ezagutu ziren, Kontseiluko proiektu desberdinak aurkeztearekin batera. Horrezaz gain, batzordekideekin etorkizuneko erronkez jarduteko mahai borobila antolatu zen. Aukera baliatu

zen ere lantaldeak identifikatuta zeuzkan zenbait formakuntza-beharrei erantzuna emateko, adituen laguntzarekin gai jakin batzuk landuz.



Urtekaria

Teknikariek urtean zehar egindako bisitetan 2024ko urtekaria banatu dute. Urtekariak Kontseilu berriaren aurkezpena, 2023 ko Komunikazio ekintzak, erroldatutako eragileen jarraipena eta Nekazaritza Ekologikoak izan duen bilakaera jaso ditu. Honetaz gain Kontseiluak eragileei eskaintzen dizkien material eta zerbitzuen katalogoa ere barne zuen.



Udazkeneko buletina



2024ko urrian, eragile batzuen eskaerari erantzunez, paperean argitaratutako buletina eragile guztiei postaz bidali zitzairen. Buletinak uda eta udazkenean burutako ekintza desberdinak jaso zituen, esate baterako salmenta puntuen mapa, eragile berriei egindako ongi etorri bilera eta Euskadiko nekazaritza ekologikoari hainbeste ekarpen egin dioten eta jubilatatu diren Roman Bengoa eta Helen Groome eragileen elkarriketa jaso zituen besteak beste.

Zerbitzuen katalogoa

Kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinen katalogoa egokitu zen; diagnostikoen zerbitzua, Ekolurra bereizgarria, egoitzaren erabilera, salmentarako euskarriak... Katalogo honen helburua kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak eragileei ezagutaraztea eta eragile berriei zerbitzu hauek jakinaraztea izan zen.



Eragile berriei ongi etorri saioa

Aurten ere alta eskatu duten eragile berriak aurrez aurre ezagutu eta, aldi berean, Kontseiluak eragile ekologiko guztiei eskaintzen dizkien baliabideak aurkeztu helburuarekin, maiatzaren 22an eta urriaren 15ean ongi etorri ekitaldia antolatu genuen Amorebieta-Etxanoko gure egoitzan. 2024an guztira 71 dira izena eman duten proiektu berriak.



5.2. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN JARDUERA BALIOAN JARRI

5.2.1. Kanpainak

Kanpaina orokorra

2024ko kanpaina “Ekologikoa, dena hobetzeko!” lelopean egin zen. Kanpainaren helburua elikagai ekologikoak kontsumitzeko deia egitea izan zen. Horretarako, nekazaritza ekologikoan dihardutenen 3 testigantzan oinarritu zen eredua bera balioan jartzeko.

Kanpaina martxan jartzeko irratik kuña sortu zen eta banner diseinuak egiteko argazki saioa egin genuen Ainhoa Elosegui, Alexandra de Dios, Jon Kepa Agirregoikoa, Izaskun Urbaneta eta Jon Bastante-rekin. Kanpainak 16 egun iraun zituen, abenduaren 16tik 31ra.



Kanpaina honek presentzia nabarmena izan du: irratan, sare sozialetan eta marketing online-an.

Kanpainaren emaitzei dagokienez, 713.175 pertsonengan inpaktua izan zuen eta guztira 11.197.104 aldiz ikusi zen publizitatea 4,31ko frekuentziarekin. 16.674 pertsonen interakzioa lortu zen. Irratira bideratutakoaren emaitza jasotzea zailagoa izaten da.



Sare sozialetan publizitatea

Bi mikrokanpaina izan dira nekazaritza ekologikoaren ezagutza bultzatzeko, bata ereduaren inguruko argibideak emateko “Zer dira elikagai ekologikoak?” eta bestea Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko ekologikoak egiten duen ekarpenaren ingurukoa.

“Zer dira elikagai ekologikoak” kanpaina ekainaren 10tik uztailaren 5era egin zen eta 18-65 urte bitarteko kontsumitzaileei zuzendu zen. Guztira, 326.373 inpresio izan ziren eta 78.501 erreprodukzio lortu ziren.



“Nekazaritza ekologikoa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak” kanpaina irailaren 27tik urriaren 11ra egin zen eta 18-65 urte bitarteko kontsumitzaileei zuzendu zen. Guztira, 48.772 inpresio izan diren eta 12.591 erabiltzailerengana iritsi da.



Irailak 23, EBko Nekazaritza Ekologikoaren Eguna

Irailaren 23an, Europako Nekazaritza ekologikoaren eguna ospatzen zela eta, ahalegin berezia egin genuen ENEEK-Ekolurratik gure sektoreak ikusgarritasuna izan zezan medioetan. Izan ere, egun hau izendatzearen helburua da jendartea ekoizpen ekologikoaren garrantziaz kontzientziaztea eta, maila berean, gure nekazaritza- eta abeltzaintza-eredu honek elikadura-sistema iraunkorrak ezartzeko trantsizioan daukan funtsezko papera bultzatzea. Denok jakitun izango zareten bezala, helburua da 2030erako nekazaritza lurren %25 ekologikoan ziurtatuta egotea. Egun, EAEko nekazaritza lurren %6 inguruan dago proportzio hori.

“Nekazaritza ekologikoa, dena hobetzeko” leloa ikur hartuta, eta merkatuan dauden aipamen-berde andanak nahasmena sortu dezakeela jakitun izanda, egun seinalatu honetan jendarteari modu argi batean komunikatu nahi izan genion elikagai osasuntsu horiek zeintzuk diren: euro-hostoarekin identifikatuta daudenak.

Egun berezi hau ospatzeko asmoz, medioetako zenbait saioekin elkarlana sustatu genuen irailaren 23an zehar elikagai ekologikoek protagonismo nabarmena izan zezaten. Hala, ENEEK-Ekolurrako lehendakari Judit Gartziak hainbat elkarriketa eskaini zituen: Radio Euskadiko “Bostekoa” saioan, Argia astekarian, Berria egunkarian eta Euskadi Irratiko “Ekosfera” zientzia dibulgazioko saioan. Xabier Lejarzegi koordinatzaileak, bere aldetik, Bizkaia Irratiari eskaini zion elkarriketa. Albistegietan ere izan genuen tartetxo bat, Nekane Tomasena Kontseilukideak Gaur Egunen zein Teleberrin egindako agerraldiekin.

Sukaldaritza saioetan elikagai ekologikoek protagonismoa izan zuten egun seinatu horretan. “Sukalerrian” saioan Joseba Argiñanok, Gatibu musika taldeko partaideak lagun gonbidatu gisan, aipamen berezia egin zien ekoizpen ekologikotik eratorritako elikagaiei, azpimarratuz nekazaritza ekologikoak ingurumenean zein gizakion osasunean dakartzan onurak. Ildo beretik joan zen ETB2 kateko “A bocados” saioa: kasu honetan, Gabriela Uriarte eta Ander Gonzalezek elikagai ekologikoak bereizteko zigilua aipatu eta erakutsi zuten, euskal ekoizpen ekologikoaren aniztasuna azpimarratuz.

Nekazaritza ekologikoari difusioa eman zion beste saio bat ETB2-ko arratsaldetako “Quédate” magazina izan zen. Nekazaritza ekologikoaren eguna aipatzeaz gain, Bidegoianeko Amalarre baserria bisitatu zuten, Denis Gordo abeltzainari elkarriketa eginez. Anboto, La Vanguardia, Europapress eta Elikaherria medioen webguneetan, beraien partetik, oihartzuna eman zioten egun horretan bertan aurkeztu genuen bilatzaileari.

5.2.2. Babesletzak:

Itzulia eta Itzulia Women lasterketetako etapako sari banaketa

Apirilaren 5ean Itzuliako etapa Amorebieta-Etxanon izan zen. Mendiko liderrari Elikagai ekologikoz osatutako saskia eman zitzaion saritzat nekazaritza ekologikoan diharduen, eta Juntako kide izan zen, Iker Iglesias eta bere familiaren eskutik. Maiatzak 11an, Itzulia women lasterketaren 2. etapa Basauri-Basauri izan zen eta han ere Euskadiko elikagai ekologikoen saskia eman zitzaion irabazleari.



Gaztea irratiko zozketa

Irailean, Nekazaritza ekologikoaren egunarekin bat eginik, Gaztea irratian Euskadiko elikagai ekologikoen saskia zozketatu zen.

Aramotz mendi lasterketan babesletza

Urriaren 6an, Amorebieta-Etxanoko Aramotz Mendi Taldeak, antolatutako lasterketa babestu zen. Parte hartutako kirolari irabazleei elikagai ekologikoz osatutako saskia eman zitzaien. Saskien banaketa Zornotzako, Errotik gaztandegi ekologikoko, Kepa Agirregoikoak egin zuen. Horrez gain, lasterketarako azpiegitura (karpa eta banderolak) eskaini zitzaizkien.



5.2.3. Zuzeneko komunikazioa

Dibulgaziorako materiala

Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da!

Azoka profesionaletan, hitzaldietan eta kontseiluak antolatzen dituen ekintzetan banatzen den eskuorria berrinprimatu zen, 1000. Esku orri hau produktuen argudio orriekin batera banatzen da. Honetan elikagai ekologikoak zer diren, zergatik diran onak eta ekoizpen ekologikoaren printzipioak jasotzen dira besteak beste.



Lurzorua – Ikaslearen gidaliburua

Lurzorua egitarauan parte-hartzaileei eskuliburu bana eman zitzaion. Eskuliburuan egunean zehar jasoko dituzten datuak daude eta landa ekosistema ekologikoaren osasun diagnostikoa egiteko prozedura jasotzen du. Lurzorua jarduera egunaren aurretik ikasleekin irteera prestatzeko emailaz bidaltzen zaien gidaliburuaren eguneraketa egin zen. Ikasleek egunean zehar erabiltzen duten gidaren irudigintza berdina mantendu zen eguneraketarako.

Gure nekazal ekosistemaren osasuna ☆☆☆

ETAPA	OBRAKETA	GAZTIA	GAZTIA	GAZTIA	GAZTIA	GAZTIA	GAZTIA
1	2	3	4	5	6	7	8
1.1. Nekazalaren osasuna (100%)	1.2. Nekazalaren osasuna (100%)	1.3. Nekazalaren osasuna (100%)	1.4. Nekazalaren osasuna (100%)	1.5. Nekazalaren osasuna (100%)	1.6. Nekazalaren osasuna (100%)	1.7. Nekazalaren osasuna (100%)	1.8. Nekazalaren osasuna (100%)
2.1. Nekazalaren osasuna (100%)	2.2. Nekazalaren osasuna (100%)	2.3. Nekazalaren osasuna (100%)	2.4. Nekazalaren osasuna (100%)	2.5. Nekazalaren osasuna (100%)	2.6. Nekazalaren osasuna (100%)	2.7. Nekazalaren osasuna (100%)	2.8. Nekazalaren osasuna (100%)
3.1. Nekazalaren osasuna (100%)	3.2. Nekazalaren osasuna (100%)	3.3. Nekazalaren osasuna (100%)	3.4. Nekazalaren osasuna (100%)	3.5. Nekazalaren osasuna (100%)	3.6. Nekazalaren osasuna (100%)	3.7. Nekazalaren osasuna (100%)	3.8. Nekazalaren osasuna (100%)
4.1. Nekazalaren osasuna (100%)	4.2. Nekazalaren osasuna (100%)	4.3. Nekazalaren osasuna (100%)	4.4. Nekazalaren osasuna (100%)	4.5. Nekazalaren osasuna (100%)	4.6. Nekazalaren osasuna (100%)	4.7. Nekazalaren osasuna (100%)	4.8. Nekazalaren osasuna (100%)

Oinarriko ebaluaketa - azken nota

Hobeto emaitza lortu duzu? ☐ Hobeago dabilazue uste duzu? ☐

Hala? ☐

Berriro emaitza lortu duzu? ☐ Berriro emaitza lortu duzu? ☐

21



Euskal sagardo ekologikoaren euskarria

Sagardotegietan euskal sagardo ekologikoaren eskaintza bistaratzeko euskarriaren lanketa egin zen. Euskal sagardoan dauden ekoizle batzuk eredu ekologikoan ekoizten dute, hori horrela, Euskal sagardo ekologikoaren sagardotegietan eskaintza modu argian bereiztea eta balioan jartzea garrantzitsua ikusi zen. Ekintza hau Euskal Sagardo kontseiluarekin elkarlanean egin zen.



Lurzorua hezkuntza egitaraua

Informatua egon daitekeen kontsumitzaile kolektiboen artean eskola-komunitatea nabarmentzen da; etorkizuneko kontsumitzaile gisa duten garrantziagatik, eskola-munduan elikadura osasungarri eta arduratsuarekiko dagoen sentsibiltatea handitzen doalako eta irakasleek ekoizpen ekologikoari buruz duten prestakuntza eta informazio eskasagatik.

Kontseiluaren helburuen artean hezkuntza-komunitatean presente dago, ekoizpen ekologikoaren hedapenean eta sustapenean erreferentziatzeko erakunde gisa, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa propio baten bidez, ikastetxeei tresna aplikagarri eta erabilgarri bat eskaintzeko, ikastetxeko curriculumean sartutako gai horiek lantzeko.

2024. urtean guztira LURZORUA egitarauaren 20 saio burutu ziren; udaberrian 12 eta udazken-neguan 8. Guztira Euskadiko 13 ikastetxeetako 500 ikaslek parte hartu zuten.

Programa Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Amorebieta-Etxanoko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan dago, honengatik Amorebietako ikastetxeek dute parte hartzeko lehentasuna.



Talde interesdunei erakusketa egonkorreara bisita egiteko eskaintza

Ikasturte hasieran, irailean, kontsumoa, elikadura eta nekazaritza sektorearekin lotutako talde eta erakunde desberdinei zuzendutako eskaintza zabaldu zen. Euskadiko ekoizpen ekologikoaren eta elikagai ekologikoen ezagutza eta informazioa sustatzeko eta aldi berean, produktu horiek ekoizteko, transformatzeko eta lantzeko prozesuak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiz. Honetan ibilaldi gidatuen aukera eskaini da. Ibilaldi gidatua sei taldek eskatu zuten. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren kontseiluan kokatuta dagoen erakusketa finkoa ezagutu ondoren, eredu ekologikoan lan egiten duten baserriarrei bisita egin zitzaion kasu batzuetan. Baserriaren bisitarako bi aukera eman ziren, Errotik baserria (behiak eta gaztagintza) eta Ibarra baserria (barazkigintza). Guztira 8 talde eta 150 pertsona inguru parte hartu zuten.



- IES Barandiaran institutua – **Dietetika Goi Maila**. Erakusketa iraunkorrera bisitaldia (06/03/2024)
- IES Botikazar – Batxilergoa 2. Maila. Erakusketa iraunkorrera bisitaldia (07/03/2024)
- IES Barandiaran institutua – **Dietetika Goi Maila**. Erakusketa iraunkorrera bisitaldia (03/03/2024)
- **Urbide Kontsumo taldea**. Kontseiluaren egoitza eta erakusketa iraunkorrera bisita (15/04/2024)
- FP Barakaldo – **Dietetika Goi Maila**. Erakusketa iraunkorra eta Ibarra baserriko baratzerara bisitaldia (19/03/2024)
- Jesuitak (Durango) DBH1 taldea. Erakusketa iraunkorra eta etiketatu tailerra (07/05/2024)
- Jesuitak (Durango) DBH1 taldea. Erakusketa iraunkorra eta etiketatu tailerra (08/05/2024)
- Jesuitak (Durango) DBH1 taldea. Erakusketa iraunkorra eta etiketatu tailerra (10/05/2024)

5.2.4. Hitzaldi eta mahai teknikoak

Hitzaldiak

Kontseiluko sustapen arloko teknikariek emandako hitzaldiak:

- Gomiztegiko Artzai Eskola. Hitzaldia eta ekologikoan lan egiten duen artzain bati bisita (29/01/2024 eta 30/01/2024)
- Gamarra Ostalaritza Eskola. Bi hitzaldi eman ziren, lehenengo Euskaraz eta jarraian Gazteleraz (Vitoria-Gasteiz) (04/03/2024)
- Egibide Ostalaritza Eskola (Vitoria-Gasteiz). Bi hitzaldi eman ziren, bata Euskaraz eta bestea Gazteleraz (18/04/2024)
- Sustraiak Elkartea – Arkautiko Nekazal Eskola (Arkauti) (11/07/2024)
- Leioako Ostalaritza Eskola (Leioa) Bi hitzaldi eman ziren, Euskaraz eta Gazteleraz. 2.mailako ikasleak (23/10/2024)
- Arkautiko Nekazaritza Eskola (Arkauti) Agroekologiako Erdi mailako ikasleei eta Goi mailako Paisajismo eta Landa Garapen ikasketak burutzen ari diren 2. mailako ikasleei (29/11/2024)
- Bilboko Goi Mailako Ostalaritza Eskola ESHBI (Bilbo) Lehenengo mailako ikasleei. Hitzaldiaren ondoren arrautza ekologikoaren eta konbentzionalaren degustazioa konparatiboa egin zen. (03/12/2024)



EHU aurkezpena ENEEK + Ae la gobernanza Europea"

Maiatzak 06ean Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako jardunaldian parte-hartu zuen Kontseiluko zuzendariak. "Producción Agraria Ecológica en la UE y en nuestro entorno, retos y dificultades" hitzaldia eman zuen.

"CPAER Errioxako Kontseiluak antolatutako jardunaldian parte-hartzea"

Errioxako kontseiluak gonbidatuta, azaroaren 26ean Xabier Lejarzegik, Kontseiluko zuzendariak, Errioxako kontseiluak antolatutako jardunaldian parte-hartu zuen. Jardunaldiaren izenburua "Comercialización de la producción ecológica" izan zen eta "Sareko" proiektua azaldu zuen "Casos de éxito de otras CCAA replicables en la Rioja" gaiaren barruan. Hitzaldiak bertaratuen interesa lortu zuen.



5.2.5. Erakusketa ibiltaria

"Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da" kanpainaren baitan lelo hori duen erakusketa mugitu zen. Erakusketa hainbat herritan ibili zen. Erakusketa Kontseiluak egiten duen Euskadiko elikagai ekologikoen sustapenaren barruan kokatzen da eta haren helburua jendarteari ekoizpen ekologikoari buruzko ikuspegi osoa helaraztea da; eskaintzen dituen abantailak eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak azaltzea. Hortaz, ingurumenarekin nolabaiteko kezka duen edo tokiko elikagai ekologikoekiko interesa duen edonori informazio ulergarria helaraztea da xede nagusia.

Paneletan ekoizpen ekologikoari buruzko hainbat datu eta informazio zabaltzen dira; elikagai ekologikoek dituzten onurak eta eredia ekologikoak abeltzaintzan dituen onurak ere; izan ere,

ez dago animalien ongizate maila altuagoa duen abeltzaintza sistemarik, eta berori da karbono aztarna txikiena uzten duen ekoizpen sistema.

Erakusketa 14 bideo motzen bidez osatzen da. Lehen QR bidez paneletako informazioa sakontzeko irakurtzeko informazioa ematen zen eta orain bideo motzen bidez era atseginagoa da.



Urtean zehar leku hauetan egon zen erakusketa:

22-25/03/2024 Berdeago Azoka (Durango)

15-25/04/2024 Egibide Ostalaritza Eskola (Vitoria-Gasteiz) / hitzaldiak

06-30/05/2024 Euskal Herria museoa (Gernika Lumo) /Eskualdeko ikasleei
bisitaldi gidatua

7-10/06/2024 Bioterra Azoka (Irun)

18/06/2024-27/09/2024 Ekoetxea Urdaibai (Forua)/ Showcooking

08-28/10/2024 Leioako Ostalaritza Eskola (Leioa)/ hitzaldiak

08-10/11/2024 Bioaraba (Vitoria-Gasteiz)

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Ihoberen, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren, laguntzarekin Euskadiko Klima eta Energiaren Astean, antolatzen den Asteklima ekimenean erakusketa ibiltariarekin parte hartu genuen. Urriaren 18tik 27ra Leioako Ostalaritza Eskolako jantokira gerturatu ziren guztiek Elikadura ekologikoaren erakusketa ikusteko aukera izan zuten.

2024KO EDIZIOA NOLA PARTE HARTU SARIAK GAUR EGUN AURREKO EDIZIOAK > ES/EU



Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da! Erakusketa ibiltaria

 2024/10/23
 Leioa Bizkaia
 Publiko guztientzat

Leioako Ostalaritza Eskolako jantokira gerturaratzen direnek Elikadura ekologikoaren ikuspegi osoa ezagutzeko aukera izango dute; haren abantailak eta gure osasunari eta ingurumenari ekartzen dizkion onurak. 14 panelek eta panel bakoitzak duen QR bidez ikusi daitezken bideo motzak osatzen dute erakusketa.



Ordutegia 13:45 – 15:00	Lekua Euskal Herriko Unibertsitatea EHU/UPV - Leioako Ostalaritza Eskola	Erakunde antolatzailea Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua ENEEK-Ekolorra	Kolaboratzaileak Leioako Ostalaritza Eskola	Publikoa Publiko guztientzat
-----------------------------------	--	--	---	--

5.2.6. Merchandising

Zuzeneko salmentarako euskarriak ekoiztu dira: heldulekurik gabeko kilo bateko paperezko poltsak, poltsa konpostagarriak eta xingolak. Irudigintza berria dugunetik paperezko poltsa eta poltsa konpostagarrien eskaera kopurua igo da. Materialaren eskaera kopurua aurreko urtearen antzekoa izan da.



5.3. EKOLURRA PROIEKTUA

Ekolurra

Kontseilu berriak Ekolurra bereizgarriaren inguruko hausnarketa prozesu bat hasi zuen apirilean. Hausnarketa honen ondorioak lehendabizi aurreko kontseilariekin eta ostean bereizgarria beraien produktuen etiketetan erabiltzen ari ziren eragileekin partekatu ziren. Hauek izan dira erabakiak:

OROKORREAN:

- ✓ Ekolurra marka kontseiluaren irudi korporatiboan mantentzea; kontseiluaren izena ENEEK-Ekolurra izaten jarraitzea; merchandising euskarrietan (poltsak, kamisetak etab.) erabiltzen jarraitzea, eta berdin web orrian, dominio, eta bestelakoetan.
- ✓ Planteatutako arazoei aurre egitea eta proiektua lantzen jarraitzea, tokiko ekoizpen agroekologikoa babesteko estrategia baten barruan.

ERAGILEAK EGITEN DUEN EKOLURRA MARKAREN ERABILERARI DAGOKIONEZ:

- ✓ Produktuen etiketetan marka erabiltzeko baimen berririk ez ematea oraingoz, eta dagoeneko emanda dauden baimenen kasuan, momentura arte eginda dauden etiketak bukatu arte erabiltzen jarraitzeko aukera luzatzea.

Azalpen gehiago behar zutenei edo ekarpen bat egin nahi zutenei emailaz edo telefonoz egiteko aukera zabalik utzi zen.

5.4. EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HAZKUNDEA BULTZATU EAEN.

5.4.1. Baratzezainen bidaia Bretainiara



Bizkaiko eta Gipuzkoako nekazari talde batek, Kontseiluaren laguntzaz, ezagutzak hobetzeko bidaia bat antolatu zuen Bretainiara.

Bidaia apirilaren 10etik 13ra egin zuten eta Bretainiako hainbat ustiategi ikusi zituzten.

Bisitako helburu nagusia nekazal lanak mekanizatzeko apero eta aukeren inguruko ezagutzan sakontzea izan zen. Horrez gain, landareak ekoizten dituen nekazari bat ere ezagutzeko aukera izan zuten.



Bestalde, mahairako Sagarrak ekoizten dituen ekoizle bat ere ezagutu zuten, honek, uztan ondoren sagarren iraupena (eta salmenta epea) luzatzeko Sagarrak nola gordetzen dituen erakutsi zuen. Baita produktuak

merkaturatzeko erabiltzen dituzten kanalak: azoka, denda eta market place-a.

5.4.2. Busturialdea-Urdaibaiko lehen sektorea dinamizatzeko lan taldea

Kontseiluak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzuak eta Urremendi Landa Garapenerako Elkartek, eskualdeko nekazaritza-jarduera dinamizatzeko, Urdaibaiko eta Biosfera Erreserbaren balioekin bat etorriz, 2020ean aktibatu zuen lan taldean parte hartu du hasieratik Hazi, Jangurie, Lorra eta Neikerrekin batera.

2021ean Busturialdea-Urdaibaiko nekazaritzako elikagaien estrategia 2030 onartu zen, nekazaritzako elikagaien sektore berritzaile, gaztetu eta lurraldera erroto baterantz aurrera egiteko bide gisa ulertuta.

Ondorioz, lehen sektoreari laguntza emateko inplikaturik dauden erakundeek Busturialdea-Urdaibain 2023-2024 aldirako tokiko nekazaritzako elikagaien sektorea dinamizatzeko Ekintza Plana abian jartzea adostu zen.

Bost arlotan dago egituratuta, eta horien artean nabarmentzekoak dira lurra eskuratzea eta nekazaritzako eragile berriak sartzea, nekazaritza sektorearen profesionalizazioa edo tokiko, ekologiko eta sasoiko produktuen banaketa.

Aurten, lurra eskuratzeko erraztasunak izateko lanak egin dira, nekazaritza-belaunaldiaren eta familiatik kanpoko erreleboaren inguruko lanak eginez; sektorearen profesionalizazioa, frutagintza ekologikoko proiektu bat garatuz. Nekazaritzaren belaunaldi-erreleboaren inguruan egindako lan guztia Fruituola proiektuarekin eta nekazaritza-testaren espazioarekin lotu behar da. Frutaren proiektua sektorean daudenei eta etortzeko daudenei laguntzeko modu bat da. Produktuaren banaketarekin lotutako lanak ere egin dira: Hub nekazaritzako elikagaien ekintzailetzarako.

Busturialdea-Urdaibaiko nekazaritza belaunaldi erreleboa



Antolatzaileak: **Irizar**, **Irizar**, **Irizar**

Dinamizatzailea: **amaturra**

Zeintzuk dira hurrengo pausoak?

Laguntza espezifikoak eskaini, bai tekniko zein emozionalak:
Familia barneko nekazaritza belaunaldi erreleboaren aldeko apustua egiten duten familiei
Familia kanpoko nekazaritza belaunaldi erreleboa biltzen ari diren pertsonak

Nekazaritza sektorean sartzeko bidea erraztuko duten tresnak garatu.

Enpresa aktiboak laguntza eman, bideragarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko.

Esperientziak eta praktika onak partekatzeko guneak sortu.

Nekazaritza belaunaldi berrientzat kontaktuzun baikor bat bateratu.



5.4.3. Idiazabal egunean “Idiazabaletik ekologikora” gidaren aurkezpena

Arkautiko Zalditegietan, irailaren 20ean, Kontseilu Arautzailek IDIAZABAL EGUNAREN bigarren edizioa, Idiazabal Gazta Jatorri Izendapen Babestuaren eguna ospatu zuen.

Idiazabal Gaztaren Kontseilu Arautzaileak, ENEEK-Ekolorra Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluarekin koordinatuta, Idiazabalgo ekoizleak eredu ekologikoan sartzeko gida aurkeztu zen. Idiazabal JDBari atxikitako ekoizleei zuzendua.



5.5. KONTSEILUAK ZIURTATUTAKO EKO ELIKAGAIEN ESKAINTZA BISTARATU.

5.5.1. EKOEUS azoka profesionalak Euskadin

Gustoko

Martxoaren 1etik 3ra Bilbao Exhibition Center azokan Gustoko azoka ospatu zen eta bertan nekazaritza eta elikadura ekologikoaren informazioa emateko gunea antolatu zen. Gastronomiako azoka desberdinetan elikagai ekologikoen eta eurohostoaren presentzia bermatzea funtzeskoa da kontsumitzaileei eredu ekologikoa gerturatzeko.

Nekazaritza ekologikoaren informazioa modu atseginagoan emateko erruletaren jolasa erabili zen eta galderak zuzen erantzuten zituzten bisitarien artean merchandising-a banatu zen.



Berdeago azoka

Martxoaren 22, 23 eta 24an ospatu zen Durangoko Landako Gunean eta azoka honetan Kontseiluak espazioa erreserbatu zuen erakusketa ibiltariaren eskutik Nekazaritza ekologikoaren inguruko informazioa emateko.



Bioterra

Bioterra azokaren XXI. edizioa ospatu zen Irungo Ficoban ekainaren 9,10 eta 11ean. 2024ko Bioterra azokan ziurtatutako 6 enpresa operadorek parte hartu zuten eta Kontseiluak 54 m2-ko kontratazioa egin zuen haientzat. Bestalde, Kontseiluak 36 m2-ko gune propioa izan zuen, eta elikadura ekologikoari buruzko erakusketako panelak jarri zituen bertan.

Bioterra erakustazoka funtsezko topagunea da Kantauri isurialdeko elikadura ekologikoaren profesionalentzat. Gainera, Kontseilua Bioterrako azokaren batzorde antolatzaileko kide izan da beste urte batez. 21. Edizio honetan guztira 10.000 bisitari gerturatu ziren Bioterrara eta bisitarien %91a baino gehiagok azokarekin pozik edo oso pozik daudela adierazi zuten.

Bioterran, elikagai ekologikoen showcooking bat egin zen azokan parte hartu zuten ekoizleen elikagaiekin. Horretarako, sukaldari baten kontratazioa egin zen eta ekoizleen elikagaiekin plater desberdinak eman zituen bisitarien artean dastatzera.

Horrez gain, erruletaren jolasarekin nekazaritza ekologikoaren eta elikagai ekologikoen informazioa eman zen modu atseginean bisitaria jolastera animatuz eta elikagai ekologikoen salmenta sustatzeko 5€ko 100 bono banatuz nekazaritza ekologikoaren galderaren bati zuzen erantzuten zuten bisitarien artean. Elikagai ekologikoen kontsumoa handitzeko ezinbestekoa da elikagai ekologiko hauen dastaketa eta erosketa bultzatzea. Bestalde, Bioterra azokan umeei zuzendutako tailerra burutzeko aukera izan zen. Etxeko txikiek nekazaritza ekologikoaren eta elikagai ekologikoen Informazioa jasotzea oso garrantzitsua ikusten dugu.

Beste urteetan bezala, Euskadiko Kontseilu Arautzaileko kide diren Gipuzkoako enpresa erakusketariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneke Departamentuaren babesa jaso zuten. Azkenik, Bioterrako lagunek bisitarien artean Euskadiko 6 saskiren zozketa burutu zuten, bakoitza 100 €-tan baloratuta.





Bioaraba

Azaroaren 8tik 10era Gasteizen, Iradier Arenan, BIOARABA VIII. edizioa ospatu zen. Euskadi gunean Nekazaritza ekologikoaren gunea antolatu zen eta Kontseiluaz gain 5 eragilek parte hartu zuten.

Bioaraban ere EKO GURPILA jolasa antolatu zen nekazaritza ekologikoaren informazioa modu dibertigarriagoan helarazteko eta Euskadi guneko ekoizleen salmentak bultzatzeko.

Bioaraba azokatik guztira 14.000 bisitari igaro ziren.



5.5.2. EKOEUS azoka profesionalak Euskaditik kanpo

BioCultura Barcelona eta Madrid

Estatu mailan antolatzen diren Biocultura Madrid eta Biocultura Barcelonako azoketan Euskadiko enpresa eragileen gunea osatu zen. Vida Sana elkarteak antolatutako azoka hauek nekazaritza eta elikadura ekologikoaren erakuslehoi aparta dira duten oihartzun handiagatik. Euskadiko eragile ekologikoei ere azoka hauetan parte hartzeko aukera ematea garrantzitsua ikusi da Euskadin dugun nekazaritza ekologikoaren ereduaren aniztasuna erakusteko. Guztira, bi azokatan, 8 eragileek parte hartu zuten.

BioCultura Barcelona maiatzaren 9tik 12ra Palau Sant Jordi ospatu zen eta azaroaren 21etik 24ra Biocultura Madrid IFEMA erakustazokan.



Biofach Nuremberg 2025

Eusko Jaurlaritzak elikagaiak kanpoan sustatzeko helburuarekin antolatzen dituen azoken eskaintzara beste urte batez elikagai ekologikoei zuzendutako azoka profesionala gehitu zuen: BIOFACH NUREMBERG 2025. Deialdia zabaldu zen arren ez zen taldea osatzeko beste erantzun jaso.

5.5.3. EKOAZOKA txikiak.

Udako azoka ekologikoak

Udako azokak duela hogeit hamar urte baino gehiagotik antolatzen dira EAEn. Tokiko ekoizle ekologikoentzat salmentarako eta kontsumitzaileekin duten harreman zuzena sendotzeko erakusleirak dira. Azoka hauek Biolur, Bionekazaritza, Ekolur eta Marisatsa elkarteekin batera kudeatzen dira. Elkarte bakoitzak azoka jakin batzuk antolatzen ditu eta Kontseilua azoken kanpaina bateratzeaz eta publizitatea kudeatzeaz arduratzen da.

2024an, 13 azoka antolatu ziren. Azokak, Elorrio, Zigoitia, Zarautz, Zumaia, Donostia, Algorta, Zerain, Mungia, Gasteiz, Eibar, Durango eta Leintza-Gatzaga herrietan izan ziren.

Udako azoka ekologikoen berri emateko kanpaina bat antolatu zen: Sare sozialetarako ekoizleen parte hartzearekin bideo bat sortu zen azokara gerturatzeko deia zabalduz, Berria egunkariko webgunean azokako egitarauaren publizitatea egin zen eta Gaztea eta Euskadi Irratian azoka ekologikoaren berri emateko kuña sortu zen.



Bestalde, azoka batzuentzako azokaren kartela ere diseinatu zen. Horrez gain, zenbait azoken berri emateko prentsa-oharrak bidali ziren tokian tokiko hedabideetara. Azken urtean erabilitako Udako Azoken irudia mantendu da azoka ekologikoen irudia egonkortze aldera. Bide batez, Kontseiluak identifikazio- eta sustapen-material komuna jarri zuen azoka guztietan eskuragarri azoka multzo osoa unitate bat bezala aurkezteko helburuarekin. “Elikadura ekologikoarekin dena hobetzen da” eskuorriak eta ekoizpen ekologikoaren informazio orokorra ematen duen triptikoa ere banatu ziren.

Ekimena erakargarriagoa izateko eta elikagai ekologikoak ezagutarazteko azoka batzuetan dastaketak eta showcooking-ak antolatu ziren. Esaterako, Zumaian, Errearterian, Zerainen eta Eibarren Osoacooking-ek elikagai ekologikoekin showcooking-ak Ekoerrezetak antolatu zituen. Gasteizko azoka ekologikoari dagokionez, fruitu eta zuku ekologikoen dastaketa egin zen eta

Arabako elikagai ekologikoekin dastaketa antolatu zen. Mungian azkenik, elikagai ekologikoen inguruko hizlaria, haragi ekologikoaren dastaketa eta pasta tailerra antolatu ziren.



Udako azoketan salmentak sustatzeko helburuarekin 5€ko erosketa bonoak banatu ziren herrietako udaletxeetan edo kultur etxeetan.



Beste azoka eta kaleko merkatu batzuk

- **Elorrioko Ferixa Nagusikoa**

Elorrixoko Ferixa Nagusiko azokan, Durangaldeko ekoizleek itsas-kontenedorea erabili zuten postu bakarra antolatuz eta Durangaldeko ekoizpen ekologikoaren eskaintza bistaratuz. Honez gain, ekoizpen ekologikoaren erakusketa izan zen.

- **Urduña Fiestas 8 mayo**

Urduñan antolatzen den azokan Kontseiluaren kontenedorea jarri zen Urduñako ekoizleen eskakizunez eta bertan inguruko ekoizleak batu eta elikagai ekologikoen postua antolatu zuten.

- **Amorebieta Etxanoko Santiagoko azoka**

Uztailaren 24ean Amorebieta Etxanon ospatzen den nekazal azokan bertan zeuden ekoizle ekologikoen elikagaiekin osatu zen saskia zozketatu zen.



5.5.4. SAREKO. Salmenta puntuen mapa eta Merkaturatze Sarea

Salmenta Puntuen Mapa

Irailaren 23an Europako Nekazaritza Ekologikoaren eguna ospatzen zela aprobetxatuz, www.ekolurra.eus gure webgunean martxan jarri dugun “**Sareko**” bilatzailea aurkeztu genuen. Tresna berri honekin, era erraz eta intuitibo batean Euskal Autonomia Erkidegoan elikagai ekologikoak non eskuratu daitezkeen jakin dezake edonork. Ekimenak kontsumitzaile askok beren buruari egiten dioten galdera honi erantzutea du helburu: “Non eskuratu ditzaket bertako ekoizle eta eraldatzaile ekologikoen elikagaiak?”.

Bilatzaile berria diseinatzeko orduan, beraien ekoizpenak zirkuitu laburrean saltzen dituzten ekoizleen salmenta guneak bistaratu nahi izan dira. Jendartearen zati handi batek ekologia, ingurumena, osasuna, bizitza eta ondo elikatzearen inguruan kontzientziazio-maila altua du, baina kasu askotan bertoko elikagai ekologikoak aurkitu eta erosteko zailtasunak dauzkate.



Bilatzaile honen berezitasun nagusia da egileek beraiek zuzenean osatuko duten bilatzailea izango dela. Hau da, informazioa zuzenean iritsiko zaio kontsumitzaileari, inguruan dauzkan ziurtatutako ekoizle eta eraldatzaileen eskutik.

Dagoeneko 269 salmenta gune identifikatu dira. Horien artean, azokak, dendak, otar-banaketak, ustiategiak, baserriak, kontsumo-elkarteak... Lurraldeka, banaketa hau da: Araban 43 kokaleku, Bizkaian 70 eta Gipuzkoan 156. Badira batzuk, baina oraindik ere beste asko jasotzeke daude, salmenta puntu berriak pixkanaka gehitzen joango dira.

Merkaturatze Sarea

Eragile ekologikoen merkaturatzea erraztu aldera, ENEEK-Ekolurran garatu zen beste tresna Merkaturatze Sarea da. Kontsumitzaileei erosketa zuzenean egitea ahalbidetzen dien aplikazio honetan biltzen dira “Sareko Puntuak”, azoka baten modura funtzionatzen dutenak. Ekoizle batek edo ekoizle talde batek antolatutako merkatuak dira, eta kontsumitzaile-talde zein norbanakoei zuzenduta daude. Aplikazioak ez du kosturik eragileentzat. Merkatu birtual hauek bilatzaile berrian txertatuta daude, “Sareko Puntuak” izenpean.

2024an 15 merkaturen eskaintza izan da aktibo. Plataforma sustatze aldera, banakako 6 bilera antolatu dira eta 7 merkatu berrien sorkuntza proba egin. Horietako 5 arazo pertsonal desberdinengatik une honetan itzalita daude.

Egin diren plataformaren egokitzapenak ekoizleen autonomiarekin estu lotuta daude; elikagaiak igotzeko aukera, argazkiak ateratzekoa, eskarien kudeaketa erraztekoa...

Merkaturatze Sarea plataforman ekoizleei zuzenean erosteko eskaintza zabala aurkitzea da helburua. Erosketa bakarrean ekoizle desberdinen elikagaiak jasotzeko modu eroso, gardena eta eraginkorra da.



Urtean zehar komunikabide eta hedabideekin harremana mantendu da nekazaritza ekologikoarekin lotutako edukiak partekatu, jorratu eta zabaltzeko.





6. KONTROL ETA ZIURTAPEN ARLOA

Kontrol planaren helburua erabiltzaileei eta kontsumitzaileei Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoan ekoiztako eta identifikatutako produktuek Europar Batasuneko elikagai ekologikoen etiketatze araudia betetzen dutela bermatzea da (2018/848 Erreglamendua).

Urte hasieran egindako arriskuen ebaluaketa batetik diseinatzen da kontrol plana, eragile bakoitzari egin beharreko kontrol eta analitika kopurua ezarriz. Auditoretza lanetan ari den teknikari kopurua plan honen beharrianetara moldatzen da, honetarako urtean zehar jarraipena ematen zaio, lantaldearen ahalmena eta sortzen diren beharrianak bat datozela ziurtatuz.

2024 urtean teknikari batek borondatezko eszedentzia bat hartu zuen irailean eta bera ordezkatzeko teknikari berri baten aukeraketa, kontratazioa eta trebakuntza egin ziren, ezarritako prozeduren arabera.

Kontrol eta ziurtapen arloan egiten diren lan nagusiak: informazio eskaerei arreta ematea, eta eragileen aktibitatearen jarraipena dira, baina badaude beste batzuk: erregistro eta dokumentazio sistema mantentzea, kalitate sistema eguneratzea, teknikarien formakuntza, edota INTERECO erakundearen dinamiketan parte hartzea (Estatuko kontseiluen elkartea).

6.1 ERROLDAREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIO ESKAEREI ARRETA

Egunero jasotzen dira **telefonoz edo posta elektronikoz** dagoeneko erregistratuta dauden eragileen edo araudiaren kontrol-sistema edo baldintza teknikoak ezagutu nahi dituzten pertsonen kontsultak. Batzuetan, kontsultek ondorengo azterketa bat eskatzen dute.

6.2 ERREGISTRO ETA DOKUMENTAZIO SISTEMAREN MANTENTZE LANAK

Aurten, ziurtagiri ekologiko guztiak TRACES deritzon Europar Batasuneko datu base ofizialean publikatu dira.

6.3 KALITATE SISTEMAREN MANTENTZE LANAK ETA EGOKITZAPENA

2024an, kontrol eta ziurtapen lanak egoki egiteko Kontseiluan ezarrita dagoen kalitate gida mantentzen jarraitu da. Sistemak ezartzen dituen eginkizun nagusiak egin dira: lan prozeduren eguneratzea, sistemaren barne auditoretzak, zuzendaritzaren errebisioak, eta lanen inpartzialtasuna eta independentziaz arduratzen den ziurtapen batzordearen batzarra.

6.4 FORMAKUNTZA

2024 urtean gai desberdineko edukien inguruko formakuntza saioak egin dira. INTERECO-ren formakuntza jardunaldi bat egin da, Santiago de Compostela-n, Estatu mailako beste kontseiluetako teknikariek batera bi egunetako formakuntza saioa antolatu zen.

6.5 INTERECOⁿ PARTE HARTZEA

INTERECO Estatuko Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu guztiak biltzen dituen elkarte da, eta ENEEK-Ekolurra bazkidea da. Irizpideak harmonizatzeko eta araudi ekologikoaren interpretazio zuzenak egiteko lan garrantzitsua egiten du elkarte honek. Zuzendari teknikoen eztabaida gune bat du, ziurtapen-irizpideak kontrastatzeko eta homogeneizatzeko aukera ematen duena. Gainera, kontrol-teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu eta komunikazio-teknikarien koordinazio-taldea dago.

INTERECO, Europan ekoizpen ekologikoaren kontrol entitateak biltzen dituen EOCC erakundeko kidea da.

Elkarteak ziurtapen zerbitzu bi ematen ditu, bata elikagai ekologikoak erabiltzen dituztela bermatu nahi duten jatetxeei, eta bestea nekazaritza ekologikora bideratutako produktu edo intsumoak egokiak direla ziurtatu nahi duten fabrikanteei. Kontseiluko zuzendari teknikoak bi ziurtapen batzordeetan hartzen du parte, jatetxeen aktibitatea ziurtatzeko zein intsumoak ziurtatzeko. 2019 urtetik, 2024 urteko martxo artean ENEEK-Ekolurrak, INTERECO elkarteko lehendakari kargua bete du, Iker Iglesias kontseilariaren eskutik.

6.6.KONTROL ETA ZIURTAPEN LANAK

6.6.1 Eragile ekologikoen errolda.

Errolda

2024an erroldak %4eko igoera izan du. Lurraldeka, hazkundea handiagoa izan da Araban, batez ere mahastigintzan. Bizkaiko datuei dagokienez, 7 eragileen jaitsiera izan da. Gipuzkoan errolda %2 igo da. Eragile gehien Gipuzkoan daude.

	2018	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023 Δ	2024 Δ
ARABA	168	179 %6	187 %4	209 %12	219 %5	235 %7	264 %11
BIZKAIA	190	208 %9	213 %2	218 %2	214 %-2	218 %2	210 %-3
GIPUZKOA	227	240 %8	258 %7,5	283 %10	285 %0,7	287 <%1	294 %2
GUZTIRA	585	627 +%7	658 +%5	710 +%8	718 +%1	740 +%3	768 +%4

Eragile bakoitzaren ekoizpen aktibitate nagusiari erreparatuta:

	2018	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023 Δ	2024 Δ
Nekazaritza	364	386 %6	438 %13	420 %4	434 %3	435 %0	471 %8
Abeltzaintza	49	57 %16	34 %-40	82 %141	80 %-2	109 %36	113 %4
Elaborazioa	114	123 %8	127 %3	140 %10	142 %1	141 %-1	139 %-1
Inportazioa	8	8 %0	12 %50	9 %-25	7 %-22	7 %0	6 %-14
Merkaturatzea	50	53 %6	47 %-11	59 %26	55 %-7	48 %-13	39 %-19
GUZTIRA	585	627 +%7	658 +%5	710 +%8	718 +%1	740 +%3	768 +%4

Ekoizpenean ari direnak, nekazari zein abeltzainak gero eta gehiago dira, elaborazio eta merkaturatzaileak ordea, gutxiago.

Eragileen profila

Hiru ezaugarri hartzen dira kontutan: aktibitatea soilik ekologikoan izatea edota ekoizpen mistoa egitea (eko eta ez eko); titular gazteen presentzia titulartasunean edota kideztan (<45 urte);

emakumeen presentzia proiektuaren titulartasunean edota kideztan.

% errolda osoarekiko (768 eragile)	Guztira
Soilik ekologikoan dihadute	%72
Titular gazteak (< 45)	%31
Emakume titular edo titularkideak	%27

Altak eta bajak

Erroldaren eboluzioa ulertzeko alta eta baja kopuruak aztertu behar dira. Alta eskatzeko interesa erakutsi duen jendea guztira 107 pertsona izan dira, baina batzuk oraindik prozesuan daude. Guztira 71 alta berri eman dira, aurreko urtean baino %39 gehiago. Aurreko urtean bezala gehienak Araban izan dira, batez ere mahastizaintzan.

Baina errolda ez da horrenbeste igo zeren bajak izan dira, aurreko urtean baino bat gehiago. Baja hauetan sartzen dira kontseiluko kontrol eta ziurtapen arlotik emandakoak zein borondatezkoak izan direnak. Arrazoiak aurrerago azaltzen dira.

	2020	2021	2022	2023	2024
ALTAK	63	82	43	51	71
ARABA	20	28	18	23	36
BIZKAIA	19	23	12	13	15
GIPUZKOA	24	30	13	15	20
BAJAK	28	27	35	36	37
ARABA	9	7	8	11	10
BIZKAIA	10	15	15	13	12
GIPUZKOA	9	5	12	12	15

Alta berrien profila

Alta gehienak ekoizleenak izan dira, eta azken urteetako eboluzioa goranzkoa da. Elaborazio lanetan aritzen den industriaren eboluzioari erreparatuta, aurten alta kopurua hasi egin den arren ez da hain nabaria.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
ALTAK	64	59	75	65	63	82	43	51	71
Ekoizpena	37	33	40	47	41	70	35	48	60
Elaborazioa	14	18	22	12	15	8	6	3	9
Merkaturatzea	11	6	9	4	3	3	2	0	2
Inportazioa	2	2	4	2	4	1	0	0	0

Urtean izandako alten artean, ekoizle edo enpresa berrien ehunekoa (lehendabiziko instalazioa sektorean):

% altak	Nekazariak	Abeltzainak	Elaborazio enpresak	Guztira
Alta eskatzen duten ekoizle edo enpresa berriak	3/42 %7	6/20 %30	2/9 %22	11/71 %15

Ondorengo taulan ekoizpen orientazio bakoitzean 2024 urtean egon diren altak ikusi ditzakegu jarduera bakoitzaren arabera sailkatuta:

NEKAZAL EKOIZPENA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Bazka eta proteaginosoen laborantza	8			8
Frutazaintza		2	6	8
Baratzezaintza	1	2	1	4
Mahastizaintza eta olibozaintza	22	0	0	22
ABELTZAINZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Erlezaintza	0	0	0	0
Haragitarako ahuntzen abeltzaintza	0	0	1	1
Haragitarako ardien abeltzaintza	0	2	3	5
Haragitarako behien abeltzaintza	2	2	4	8
Zaldien abeltzaintza	2	3	1	6
ELABORAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Haragi eraldatuak			2	2
Frutak eta barazkien ontziratzea		2		2
Fruta eta barazkien manipulazioa eta ontziratzea			2	2
Bestelako edariak ontziratzea eta eraldatzea		1		1
Ardoaren elaborazioa	1	1		2

Bajen profila eta arrazoiak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
BAJAK	31	27	22	28	27	35	36	37
Ekoizpena	24	13	10	21	22	21	26	19
Elaborazioa	3	9	7	4	3	7	3	7
Merkaturatzea	4	4	4	3	2	4	7	11
Inportazioa		1	1	0	0	3	0	0

Aurreko urteekin alderatuta baja kopurua ia berdina izan da, baina behintzat ekoizpen esparruan gutxitu egin da.

Kontrol eta ziurtapen arlotik 5 baja eman dira eta gainontzeko 32-ak eragileak eskatuta eman dira. Borondatezko baja hauen arrazoiak:

Borondatezko bajaren ARRAZOIAK		Zenbatekoa: 32
Jarduerarekin jarraitzen du baina ekologikoa egin gabe:		2
Jardueraren erabateko etena:		30
ARRAZOIAK:	Enpresa itxi da	2
	Jubilazioak	1
	Arrazoi ekonomikoak	4
	Nekazal jarduera uzten du	21
	Beste enpresa batek hartu du	2

Arrazoiak aztertuz ikusi daiteke baja gehienek arrazoi nekazal jarduera bere osotasunean utzi izana izan dela. Zalantzarik gabe proiektuen bideragarritasuna da arazo haundiena.

6.6.2 Ziurtatutako aktibitateak

Eragile bakoitzak aktibitate bat baino gehiago izan ditzake ziurtatuta. Hau kontuan hartuta beheko taula sortzen da:

	nekazal ekoizpena	abeltzaintza	eraldaketa	merkaturatzea	inportazioa	GUZTIRA
ARABA	196	39	74	15	3	327
BIZKAIA	136	57	46	19	5	263
GIPUZKOA	182	65	87	28	6	368
TOTAL	514	161	207	62	14	958

Gipuzkoan daude ekoizpen aktibitate gehien ziurtatuta. Talde handiena nekazal ekoizleena da %54 , ondoren, eraldaketarena % 22.

EKOIZPENAK	2017 Δ	2018 Δ	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023 Δ	2024 Δ
Landare ekoizpena	365 %4	389 %6	422 %8	439 %4	479 %9	478 %-0,2	490 %2	514 %5
Animalia ekoizpena	90 %13	94 %4	104 %10	118 %13	128 %8	138 %8	141 %2	161 %14
Elaborazioa	142 %23	161 %13	169 %5	181 %7	197 %8	206 %4,5	203 %1	207 %2
Merkaturatzea	60 %5	66 %10	72 %9	77 %7	83 %7	77 %-7	72 %-6	62 %-16
Inportazioa	8 %33	14 %75	15 %7	17 %13	20 %17	16 %-20	15 %-6	14 %-0,07

Ziurtatutako ekoizpen aktibitateek gora egin dute, batez ere abeltzaintzan. Merkaturatzaileen eta inportatzaileen jarduerak behera egin dute. Denda askok granelean saltzeagatik aktibitate hau ziurtatu beharko lukete baina ez jakintasun haundia dago.

Ziurtapen eskaeren eboluzioa:

Eskaera kopurua	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Guztira
Altak				
2020	20	19	26	65
2021	29	23	33	85
2022	18	12	13	43
2023	23	13	15	51
2024	39	11	21	71
Ziurtatutako jarduera handitzeko eskaera				
2020	20	16	12	48
2021	14	17	18	49
2022	18	8	13	39
2023	15	10	13	38
2024	10	13	13	36

Aipatu bezala alta gehien Araban eman dira, mahastizaintzan. Azken hiru urteetan honela izan da.

Alta eskaerez gain, jadanik ziurtatuta dauden eragileen artean, orokorrean, aktibitate kopurua haunditzeko eskaerak pixka bat jaitsi dira, nahiz eta Bizkaia eta Gipuzkoan igo diren.

6.6.3 Ekologikoan ziurtatutako nekazal lurren azalera.

Azalerak urteko %18eko erritmoan egin du gora. Gipuzkoan izan da lurren azalera igoera nabarmenena ehunekotan, %32koa, abeltzain handiek izena eman dutelako. Lurraldeka ordea, Arabako azalera da garrantzitsuena, mahatsondoen, larreen eta estentsiboen laborantzari esker:

	2018 Δ	2019 Δ	2020 Δ	2021 Δ	2022 Δ	2023 Δ	2024 Δ
Azalera (ha)	4466 %5	5661 %27	6789 %20	7905 %16	9104 %15	10772 %18	12689 %18
Araba	2735 %2	3245 %18	4046 %25	4664 %15	5213 %12	5933 %14	6579 %11
Bizkaia	883 %7	1191 %34	1417 %19	1621 %14	1699 %5	2204 %30	2648 %20
Gipuzkoa	848 %13	1225 %44	1326 %8	1618 %22	2192 %35	2636 %20	3461 %32

Inskribatutako azaleraren %77a larreei dagokie, larreen azalera nabarmentzen da lurralde guztietan. Larreen ondoren, mahastiak Araban eta fruta-arbolak Gipuzkoan. Nabaritzekoak dira ere lugorri eta olibondo azalaren igoerak, eta ortugintza, zereal eta tuberkulu (patata) ekoizpenen jaitsierak.

ORIENTAZIOA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	DIF 2023	%
Ale zerealak	253,6	0,4	2	256	-18	-7%
Ale lekaleak	76,7	2,1	2,4	81,2	3	4%
Ortuariak	14,9	65,8	61,1	144,9	-15	-10%
Tuberkuluak	14,9	0,6	0,1	15,6	-6	-29%
Fruta-arbolak	35,4	80,3	351	468,2	36	8%
Olibondoak	41	3,06	0	44,47	10	30%
Mahastiak	1642	12,6	27,5	1682,2	272	19%
Fruitu lehorrak	10,4	5	39,2	54,6	1	1%
Larreak, belardia, bazka proteaginosak	4364	2438	2962	9802	1549	19%
Lugorri eta ongarri berdea	80,9	25	21,6	127,5	53	70%
Haziak eta haztegiak	0	0,14	0,41	0,55	-0	-45%
Laborantza industrialak	30,7	0	0	30,7	23	284%
Beste landaketak	12,1	0,2	0	12,3	-3	-18%
GUZTIRA	6579	2648	3461	12689	1905	18%


EAE-n lantzen den nekazal azalera guztiarekin alderatzea

Ekoizpen ekologikoan inskribatuta dagoen azalera, erkidegoan lantzen den azalera osoarekin alderatuta, ekoizpen orientazio bakoitzean ekologikoak duen presentzia ikusi daiteke. Orotara, nekazal azalera osoaren %6,7 da ekologikoak. Estatuko eta Europako batzbestekoak %10,5 bueltan daude.


Azalera osoaren datua HAZI-k emandakoa da 2023 urterako eta autokontsumoko azalera kontutan izan gabe.

HEKTAREA KOPURUA TA %	GUZTIRA EAEn (HAZI 2023)	EKOLOGIKOAN	%
Ale zerealak	40.140	256	0,6%
Ale lekaleak	1.762	81	4,6%
Ortuariak	888	142	16,0%
Tuberkuluak	1.566	16	1,0%
Fruta-arbolak	1.834	467	25,5%
Olibondoak	196	44	22,5%
Mahastiak	14.601	1.682	11,5%
Fruitu lehorrak	216	55	25,3%
Larreak, belardia, bazka eta proteaginosoak	111.535	9.764	8,8%
Lugorri eta ongarri berdea	2.163	128	5,9%
Haziak eta haztegiak	29	1	1,9%
Laborantza industrialak	13.384	31	0,2%
Beste landaketak (trufa, loreak)	0	12	
GUZTIRA	188.314	12.677	6,7%

EAEko azalera ekologikoa 2024an



2024an ziurtatutako azalera berriak



7. KONTROL PLANAREN HELBURUAK ETA EMAITZAK

Kontrol-planak urtarrilaren 31n hasten dira, eta urte bateko iraupena du. Txosten honetan jasotzen diren datuak 2024ko urtarrilaren 31tik, 2025eko urtarrilaren 31ra bitartean egindako kontrolei eta hartutako ziurtapen-erabakiei dagokie.

7.1 Kontrol plana.

- Kontrolatutako **espedienteen kopuruak** gora egiten jarraitu du;

	2022	2023	2024
Kontrolatutako eragile kopurua	721	731	786

Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko Europar Batasuneko 2018/848 Araudian deskribatutako kontrol-sistemak, gutxienez, operadore bakoitzari **urteko kontrol** bat egitea arautzen du. 786 eragile kontrolatu dira guztira.

- Kalean guztira **1132 kontrol** egin dira.

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Kontrol kopurua	800	850	899	965	945	1063	1071
Kontrol analitikoak	132	134	117	169	72	74	61
Kontrol kopurua eragileko	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4
Analitika izan duten eragileen ehunekoa	23%	21%	18%	24%	10%	10%	8%

Kontrolen barne daude: jarraipen auditoretzak, auditoretzak aurrez abisatuta eta abisatu gabe, ezohiko ikuskaritzak, prozesuen “in situ” auditoretzak eta homologazio berriak.

Gainera, aurretik abisatu gabe beste 61 ikuskaritza bisita egin dira laginak jasotzeko. Europar Batasunak ezarritako irizpideetara hurbiltzeko helburuarekin lagin kopurua jaistea erabaki zen 2022 urtean.

- Kontrol bisita gehigarriak eta analitikak.**

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Bisita gehigarriak	%14	%14	%12	%11	%10	%10	%9,7
Laborategiko analisiak	%18	%20	%18	%25	%9	%10	%8,2

Planifikatutako kontrol planak 740 eragile kontrolatzea aurreikusten zuen, honen arabera eragileen % 9,7ri kontrol-bisita gehigarriak egin zaizkie (72/740), Aurten 74 kontrol-bisita gehigarri aurreikusi ziren, baina 2 ezin izan ziren egin, 2 eragile horiek bajaran eman zirelako. Ondorioz, 2 kontrol gehigarri hauek egin gabe, araudiak eskatzen duen kontrol gehigarrien %10tik behera gelditu gara, %9,7.

Ekoizpenaren analitika % 8,2-ri (61/740) egin zaie. Honekin araudiak eskatutako analitikoen kopurua gainditu da, % 5. Lagin guztiak aurrez abisatu gabe hartzen dira.

Guztira, 127 eragileri egin zaie kontrol-bisita bat baino gehiago, edo laginak hartu zaizkie analisirako, hau da, 2024an kontrolatutako eragile guztien % 16-ri (127/786).

7.2 Ziurtatutako produktuen analisiak.

Urteko kontrol-planean, ziurtatutako jardueren mota bakoitzari laborategiko analisiak egitea adosten da. Ondoren, jarduera bakoitzean zein produkturi egingo zaion analisisia adostuz.

2024an, hondakin anitzen eta transgenikoen presentziaren analisiak egin dira, landare-produktu anitzetan, batez ere barazkien eta mahatsaren hosto eta fruituetan, baina baita ardotan, pentsu eta eztian.

Aurten 3 laborategirekin egin da lana; SICaAgri Almeriakoa, GEO analisiak Agrolab eta Apinevada eztiaren laginak.

Guztira 61 lagin analizatu dira. Laginak zuzenean jaso dira ekoizpen-unitateetan edo industriaren instalazioetan. Ondorengo taulan ikus daitezke burututako analisiak:

	Hondarrak	GEO (OGM)	Metal astunak	Etileno oxidoa/DNA
Oltoa	2			
Barazkiak	6		4	
Hostoak	1			
Ura			1	
Bazka laboreak	4			
Frutak	4			
Lekaleak	1	1		
Olibak	1			
Pentsua	1	2		
Lurra	1			
Mahatsa	27			
Ardoa	4			
Eztia	1			
Guztira 2024	53	3	5	
Guztira 2023	61	4	8	1
Guztira 2022	62	3		7
Guztira 2021	160	6	1	2
Guztira 2020	111	6		
Guztira 2019	128	3	3	
Guztira 2018	124	8		

Analitiken emaitzak

Analizatutako laginen %98an ez da inolako kutsadura arrastorik antzeman. Soilik kasu batean aurkitu dira pestizida hondakinak. Emaita bereziki ona da beste urteekin alderatuta.

Azaldutako positibo bakarra istripuz izandako kutsadura izan zela frogatu zen, tratamendu fitosanitarioak aplikatzeko makinaria konpartitzean eman zen kutsadura. Kutsatutako uzta ez zen eko aipamenekin merkaturatu.

7.3 Egindako kontrolen ondorioak

Kontrolatutako 786 espedienteetan hartutako ziurtapen ebazpenak

Erabakia	Eragile kopurua
Ziurtagiria kendu	4
Denboraldi baterako ziurtagiriaren etena.	5
Ekoizpen lotearen deskalifikazioa	3
Eragilearen baja kuota ez ordaintzeagatik	1

7.4 Aurkitutako ez adostasunen laburpena

Ondorengo taulan kontrol lanetan aurkitutako ez-adostasunak zerrendatzen dira. Kontutan izan eragile batek ez adostasun bat baino gehiago izan ahal duela, baina hartu den ziurtapen erabakia edo ebazpena bakarra izan dela. Beraz ez dira bat etorriko aurreko taula eta ondorengoa. Kontutan izan behar da ere, taulan jasotako ebazpenak laburpen bat direla.

Araudiaren gaia	Espediente kopurua	Ez adostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Orokorrak			
Derrigorrezkoak diren erregistroak ez izateagatik	3	Behin eta berriro erreklamatu zaie aurkeztea derrigorrezkoak diren erregistroak aurkeztea, epeak gainditu dira.	Ziurtagiria kendu
Erregistroak ez daude	1	Auditoretzan erregistroak ez dira aurkezten	Neurri zuzentzaile egokia Ziurtagiria berriztatu
Erregistro inkompletoak	2	Intsumo baten erabileran erregistroak inkompletoak daude, eta ezin da balantzea egin	Neurri zuzentzaile egokiak Ziurtagiria berriztatu
Inskribatu gabeko instalazioen erabilera	1	Produktua ontziratzeko enpresa ez zegoen ziurtatuta	Neurri zuzentzaile egokiak Ziurtagiria berriztatu

Araudiaren gaia	Espediente kopurua	Ez adostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Ez da egiaztatu hornitzaileetako baten ziurtagiria	4	Hornitzaileak ez zeukan ziurtagiri ekologikoa	2 Produktua deskalifikatu
			2 Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Kontabilitatea bereiztuta ez izatea	2	Salmenta agiri batean produktu eko eta ez eko bereiztu gabe agertzen dira.	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
			Ziurtagiriaren etenaldia
Etiketatua gaizki dago	5	Etiketak gaizki daudela ikusten da.	Ziurtagiria berriztatu
			Ziurtagiria kendu
Produktu ez ekologikoa ekologikoa bezala saldu	1	Animali ez ekologikoan ekologiko bezala saldu dira	Ziurtagiriaren etenaldia
Araudiak ezartzen duen kuota ez ordaindu	1	Bi urte jarraian tasak ez ordaintzeagatik	Inskripzioa kendu
Nekazaritza ekoizpena			
Emaizta analitiko desegokia	1	Laborategiko emaitza: Mahatsean hainbat substantziaren arrastoen agerpena	Produktua deskalifikatu
Ekoizpena ez da zaindu behar bezala	2	Landaketak zaindu gabe aurkitzen dira, utzita bezala	Ziurtagiria berriztatu
			Bilakaera epea luzatu
Landare ez ekologikoen erabilera	1	Bisitan ezin da egiaztatu hainbat landaketen jatorria	Ziurtagiriaren etenaldia
Onartu gabeko tratamendua duen haziaren erabilera	2	Hazi ez ekologikoak, onartu gabeko tratamenduarekin erabili dira	Inplikaturik dagoen uztza deskalifikatu
			Bilakaera epea luzatu
Ez onartutako intsumoen biltegiratzea	1	Ireki gabeko intsumo bat armarioan ikusten da	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Intsumo baten erabilera desegokia	1	Onartutako produktu bat erabili da modu desegokian	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu

Araudiaren gaia	Espediente kopurua	Ez adostasunen nondik norakoa	Ebazpena
Erreketa-hondarrak unitatean	1	Berezko belarrak erre ziren	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Onartu gabeko intsumoa erabiltzea	1	Landare ekoizpenean ez onartutako produktua erabili zen	Bilakaera epea luzatu
Abeltzaintza			
Animali ez ekologikoak ustiatzean sartu	2	Behi ustiatzean araudiak zehazten duen baino animali ez ekologiko gehiago sartu dira	Ziurtagiriaren etenaldia
Oilotokiaren lurrian ez dago azpikorik	1	Oilotokiak ez du azpikorik	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Abeltzaintza			
Ukuiluaren baldintzak ez dira egokiak	1	Ukuiluan animali guztiak ez dira sartzen	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Animaliak lotuta ikusten dira	1	Animaliak lotzeko salbuespena ez dauka eskatuta	Neurri zuzentzaileak aurkeztu gabe. Erabaki gabe
Animaliak zikinak daude	1	Ukuiluan ez dute ohea nahikoa eta garbia	Neurri zuzentzaileak aurkeztu gabe. Erabaki gabe
Ez dira errespetatu elikadurarako nutrizio-eskakizun orokorrak animali ekologikoetan	1	Animaliak ez dira osasuntsu ikusten	Ziurtagiriaren etenaldia
Ez da elikadura arau espezifikoak errespetatu	1	Animaliak ez dira larreetara ateratzen	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu
Pentsu ez ekologikoa erabili da txahalekin	2	Esne aldiaren ostean laguntza moduan erabili zen, (errepikatuta)	Ziurtagiriaren etenaldia
Inportazioa			
Inportazioan COI inkompletoa dago	1	Inportazioan COI ez zegoen ondo azalduta	Neurri zuzentzaile egokiak. Ziurtagiria berriztatu